



EBAZPENA, 2019ko maiatzaren 20koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduran kanpoan utzitako izangaien behin-behineko zerrenda onartzen duena programazio didaktikoa epean ez entregatzeagatik (hautaketa-prozedura Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bidez ditu zen).

Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bidez (2019ko martxoaren 7ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozedurarako deialdia egin zen.

Aipatutako Aginduaren 7.3.1 oinarriaren lehenengo paragrafoaren arabera, 2019ko maiatzaren 2tik 14ra arte, biak barne, txanda irekiko eta desgaitasuna dutenentzat gordetako txandako izangai onartuek, bai eta baztertuta daudenek ere (baldin eta gora jotzeko errekurtsoa jarri badute eta ebatzi gabe badago), programazio didaktikoa entregatu behar zuten.

Oinarri horren seigarren paragrafoaren arabera, aipatutako programazioa epe barruan entregatu ez duten pertsonak galdu egingo dute hautaketa-prozeduran parte hartzen jarraitzeko eskubidea, eta baztertu egingo dira.

Programazio didaktikoa aurkeztu ez duten izangaiak ezarritako epean badirela egiaztatu ondoren,

EBATZI DUT

1. artikulua.- Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduran, kanpoan utzitako izangaien behin-behineko zerrenda programazio didaktikoa epean ez entregatzeagatik (hautaketa-prozedura Hezkuntzako Sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bidez deitu zen).

2. artikulua.- Ebazpen hau, bai eta behin-behineko zerrenda ere, interesdunei jakinarazteari begira, Hezkuntza Saileko honako Interneteko helbideetan argitaratuko dira:

- <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz): «EPE 2019. Maisu-maistrak, Kontserbatorioak eta HEO» - «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» (hatutatu Kidegoa eta Espezialitatea) – «Emaizak» – «Programazio didaktikoa».

- <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/> - «EPE 2019. Maisu-maistrak, Kontserbatorioak eta HEO» - «Oposizio-aldia» – «Programazio didaktikoa».

3. artikulua.- Izangaiak erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute Ebazpen honen aurka, bost laneguneko epean, argitara eman den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko maiatzaren 20an.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,
JON AGIRRE HUERGA.